

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN
AKTA**

**LEHENDAKARITZA, 2015EKO
ABENDUAREN 15A**

BERTARATU DIRENAK:

Iñigo Urkullu jauna
LEHENDAKARIA

Arantza Tapia andrea
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEN SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUA

Jon Darpon jauna
OSASUNEN SAILBURUA

Unai Rementeria jauna
BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Markel Olano jauna
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Pilar García de Salazar andrea (Ramiro Gonzalez jaunaren ordez)
ARABAKO DIPUTATU NAGUSIORDEA ETA EKONOMIA GARAPENAREN ETA
LURRALDE OREKAREN SAILEKO DIPUTATUA

Fernando Plazaola (Iñaki Goirizelaia jaunaren ordez)
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREORDEA

Jose M^a Gibert jauna
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Vicente Atxa jauna
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Alberto García Erauzkin jauna
INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

Javier Ormazabal jauna
TECNALIA-ko PRESIDENTEA

Iñaki Aranburu jauna
IK4-ko PRESIDENTEA

José Luis San Pedro jauna
IBERDROLA-ko PRESIDENTEORDEA

Antón Pradera jauna
CIE AUTOMOTIVE-ko PRESIDENTEA

Fernando Querejeta jauna
IDOM-eko PRESIDENTEA

Jesús Peña jauna
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

EZ BERTARATZEKO ARRAZOIA AZALDU DUTENAK:

Ricardo Gatzagaetxebarria jauna
OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUA

Fernando Cossío jauna
IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

Jesús M^a Ugalde jauna
JAKIUNDE-ko PRESIDENTEA

Andrés Arizkorreta jauna
CAF-eko KONTSEILARI ORDEZKARIA

Lehendakariak ongi etorria eman dio Iñaki Aranbururi, Kontseiluko kide berria den aldetik, eta azaldu du bertaratu ez diren pertsonak etorri ezina adierazi dutela, hainbat arrazoiengatik.

Jarraian, Kontseiluari planteatu dio aurreko akta onestea.

1. Aurreko akta irakurri eta onestea

Erabakia: “Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak 2015eko irailaren 16an egindako azken bileraren akta onetsi du”

2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea

Lehendakariak berriz ere hitza hartu du eta bileraren nondik norakoak orokorrean aurkeztu ditu. Hasieran, Jesús Peñak espezializazio adimentsuko “RIS3 Euskadi” estrategiaren hedapenaren lehen urte honetan egindako jardueren balantze-laburpena egingo du. Jarraian, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak eta Osasuneko sailburuak erreferentziarako eta RIS 3ko lehentasuneko hiru arloen (fabrikazio aurreratua, energia, eta biozientziak-osasuna arloa) bultzadarako adibide diren bi ekimen espezifiko azalduko dituzte. Gero, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak duela gutxi argitaratu den Zientziaren azken txostenaren laburpena aurkeztuko du, baita Euskadiko azpiegitura zientifiko-teknologikoen maparen laburpena ere, azken hori gutxi barru jendaurrean aurkeztuko baita. Hitzaldi horiekin (bakoitzak gutxi gorabehera 15 minutu iraungo du), aurten, 2015ean egindako jardueren azalpena amaituko dugu.

Azkenik, Jesús Peñak 10 minutuan azalduko du datorren urtean, 2016an, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana egikaritzeko bigarren fasea, bai eta euskal erakunde publikoek I+G+b arloan 2016an izango duten aurrekontu-egoera ere.

Lehendakariak, hasierako aurkezpen hau amaitzeko, zera aurreratu du: aurreko hitzaldiekin bat etorrira, ebazpen-proposamen batzuk aurkeztuko dizkio Kontseiluari, hark erabakia har dezan.

3. 2015. urteko balantze-laburpena. RIS 3 Euskadi egikaritzeko 1. fasea

Jesús Peñak hitza hartu du, eta 2016an, ZTBP burutzeko lehen urtean egindako jarduketan balantze orokorra aurkeztu du. Balantze horrek Kontseiluaren abenduaren 16ko bileran azalduko informazioa eguneratzen du.

Bere hitzaldia hasteko, 2020 ZTBP Jaurkitzaren giza garapen iraunkorraren estrategia orokorraren barruan kokatu du.

Azaldu duenez, lehen urte honetarako planteatutako helburu guztiak bete dira.

Helburu horiek hiru ardatz handitan taldekatu ahal dira.

Lehen ardatza: Gobernantza. Planaren Gobernantzako organo guztiak abian jarri dira. Alde horretatik, *Sailarteko Batzordea*, 20 pertsonak osatzen dutena, eta zerikusia duten Jaurkitzako sail guztiak biltzen dituen, funtsezko tresna izan da RIS3ren lehentasunak bultzatzeko. Horrez

gain, abian jarri da *Erakundearteko Batzordea*, Jaurlaritzako, hiru Foru Aldundietako eta Eudeleko ordezkariak biltzen dituen. Azkenik, hiru "lehenetasun estrategiko"ei eta RIS3 Euskadi estrategian definitutako lau "aukera-eremu"ei dagozkien 7 pilotaje taldeak abian jarri dira.

Nabarmendu beharreko alderdi bat da pilotaje talde horietan berrikuntzaren helizea osatzen duten hiru taldeetako ordezkariak batera parte hartzen dutela; honako hauek dira hiru talde horiek: A) Administrazioa) Enpresak eta klusterrak. C) Eragile zientifiko eta teknologikoak.

Jesús Peñak azaldu duenez, pilotaje talde horiek modu autonomoan funtzionatzen dute, hau da, eurek erabakitzen dute nor parte hartuko duen pilotaje taldean eta zein lantalde bultzatu behar diren. Pilotaje talde horietako batzuk lantalde berezietan zabaldu dira, taldeak berak interesgarritzat jo dituen zereginen ekiteko.

Taldeak abian jarri diren lehenengo urtea izan da hau; alde horretatik, zientzia- eta teknologia-gaitasunak teknologia- eta enpresa-gaitasunekin sakonago integratzen saiatzea beharrezkoa izango da, European esanguratsuak izango diren proiektu integratuak garatzeko. Ziurrenik, sakonago jorratu beharreko arloetako bat honako hau da: zientzia- eta unibertsitate- ikerketa Euskadiren lehenetasun estrategikoen hobeto lerrokatzea, 2020. urtea helmuga izanik.

Bigarren jarduera-ardatza: Fokalizazioa. Euskadirentzat RIS 3 lehenetasun bakoitzaren barruan garrantzitsuenak diren arlo eta Teknologiarik garrantzitsuenak identifikatzea. Herralde gisa dauzkagun lehenetasun estrategikoei "aurpegia eta begiak" jartzea da kontua. Europako eskualde guztiak bat datoz gauza batean: Euskadiren lehenetasun estrategiko berberak adierazten dituzte; horregatik funtsezkoa da fokalizatzea eta definitzea zein arlo eta teknologia jorratu behar ditugun sakonago, European buru izatea lortzeko. Zeregin horretan modu aktiboan parte hartu dute pilotaje talde guztiek, eta hasieran gutxi gorabehera lehenetasunezko 50 arlo eta teknologia aukeratu dira; hau da, RIS 3 lehenetasun bakoitzeko batez beste sei edo zortzi arlo.

Konturatzen gara RIS3 strategiaren hedapena prozesu bizia eta dinamikoa dela; beraz, Kontseiluari proposamen hau egiten zaio: 2014ko abenduan onetsitako 2020 ZTBPre agiriari eranskin bat gehitzea. Eranskin horretan pilotaje taldeek adierazitako lehenetasunezko arlo eta teknologiak jasoko dira, ezarritako orientazio eta fokalizazio helburuaren arabera.

Hirugarren jarduera-ardatza: Bisualizazioa. Kontseiluaren aurreko bileran adierazi zenez, aurten ahalegina egin da Euskadin egindako ikerketa eta garapen jardueraren erreferentzia diren proiektu eta pertsonak dibulgazioaren ikuspegitik ezagutzera emateko. Bikaintasuna eta aitzindaritza bilatzearen filosofiarekin, denok gara garrantzitsuak, baina proiektu batzuk eta pertsona batzuk bereziki esanguratsuak dira. Horiek dira geure burua European aurkezteko txartela.

Helburu horrekin, *guztira 50 proiektu* hautatu dira, honako bost parametro hauetan oinarrituta: Bikaintasun zientifiko-teknologikoa; garrantzi ekonomikoa; zein neurritaraino diren nazioartekoak eta zein neurritaraino parte hartzen duten European; izaera integratzailea eta zeharkakoa izatea; eta gizartean eta enpresetan eragina izatea.

Helburua da proiektu horiek ezagutzera ematea hedapenerako fitxa indibidual baten bidez. Fitxa horretan sinpletasunez azalduko da zertan datzan proiektu bakoitza eta bere garrantzia, bai zientziaren aldetik, bai ekonomia eta enpresa arloaren aldetik.

Kontseiluari proposatzen zaio 50 proiektu horietako bakoitzaren fitxa indibiduala ere eranskin gisa sartzea orain indarrean dagoen ZTBPan.

Azkenik, bisualizazioaren azken ardatz horren barruaneuskal *zientzia-sisteman esanguratsuenak diren pertsonak* (“*Who is Who*”) identifikatzeko lana egin da. Horretarako, lau jarraibide objektibo eta konparagarri erabili dira: Nazioarteko prestigio zientifikoa, adierazle objektiboetan oinarrituta. Bikaintasuneko ikerketa-zentroetako zuzendari zientifikoak. ERC bat lortu duten ikertzaileak, euren kategorietan. Bikaintasun-ikerketako talde finkatuen zuzendariak. Halaber, bereziki sartu dira euskal zientzia-sisteman Start kategorian ERC bat lortu duten ikertzaile gazte guztiak. Hain zuzen ere, ERC bat daukaten ikertzaile gazteen kopurua handitzea da euskal zientzia-sistemaren erronketako bat.

Dibulgazio-jarduera horren helburua da gizarteak aintzat har ditzala euskal zientziaren aitzindari diren pertsonak. Horri dagokionez, Kontseiluari proposamen hau aurkeztu zaio, azter dezan: aurreko irizpide horietan oinarrituta hautatutako pertsonen zerrenda txertatzea, bakoitzaren curriculum zientifikorako loturarekin, ZTBParen eranskin gisa.

4. Ekimen espezifikoko aurkeztea

Ekimenaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua

Arantza Tapia sailburuak azaldu du zein neurritaraino egin duten aurrera Euskadi partaide duten Europako bi ekimenek, gure Herriaren bultzadan eta posizionamenduan garrantzi estrategikoa izango dutenak, bai energiaren arloan -Vanguard ekimenarekin-, bai fabrikazio aurreratuaren arloan -KIC AVM proiektuarekin (fabrikazio aurreratu)-.

Vanguard ekimena

Vanguard ekimena hasieran Europako 26 eskualdek osatutako lantaldea da. Eskualde horiek konpromisoa dute Europa industria arloan berpiztu dadila bultzatzeko, espezializazio adimentsua bitarte dela. Vanguard ekimena Europako Batzordeak berak babesten du. Ekimen hori osatzen duten lantaldeen artean, Euskadi, Eskoziarekin batera, Europako 13 eskualdek osatutako talde bateko buru da. Talde horren helburua giro zakarretan energia lortzearen arloko proiektuak garatzea da. Euskadik, beste hainbat ekarpenen artean, talde espezifikoko honetara Bimep plataforma ekarri du. Talde honetan energia erauzteko nahiz energia garraiatu eta banatzeko enpresek parte hartzen dute, bai eta osagai eta zentro teknologikoen konpainiek ere, euskal administrazioaren laguntzarekin.

Orain lanean ari dira “Technology Roadmap” izenekoan. Bertan jasota daude giro zakarretarako osagaiak eta sistemak fabrikatzen dituzten enpresentzako industria arloko erronkak eta funtsezko teknologiak; halaber, Europako enpresen sare iraunkor bat sortzen ari dira,

“Industrial Leadership Comitte” batek ordezkaturata. Sare horrek Europako bezeroen eta hornitzaileen arteko elkarlanerako proiektuak identifikatuko ditu.

Hain zuzen ere, sailburuak adierazi duenez, otsailaren 25ean Bruselan Workshop bat egingo da. Bertan modu aktiboan parte hartuko du Eusko Jaurlaritzak, eta esparru horretan 2020. urtea helmuga izanik dauden industria eta teknologia arloko erronkak izango dira ardatza.

Kic Manufacturing Europako ekimena

Eusko Jaurlaritzak RIS3 estrategiaren barruan bultzatzen duen Europako beste ekimen handi bat KIC AVM (Added Value Manufacturing) da. Ekimen hori datorren urtean, 2016an, Europa osoan ateratzea aurreikusi da. Fabrikazio aurreratuko pilotaje taldearen beraren iritiz, hori ekimen estrategikoa da, Euskadik Europan eta nazioartean fabrikazio aurreratuko nodo gisa bere posizioa har dezala bultzatzeko.

Knowledges Innovations Comunities (KIC) izenekoak EITk (Berrikuntzaren eta Teknologiaren Europako Institutua) sortutako tresnak dira. Tresna horietan biltzen da Europa osorako ezagutzaren triangelua (enpresa, ikerketa eta goi mailako hezkuntza) Europako elkarte tematikoan, kasu hori baita fabrikazio aurreratuarena.

Fabrikazio aurreratuko KIC-aren helburua da pizgarria ematea ikerketaren emaitzak ustiatzeko eta esparru horretan funtsezkoak diren teknologien garapena enpresa arloko eragileei transferitzeko.

Europako Ikerketa Institutuak jardueren % 25 finantzatzen du, eta gainerakoa finantzatzeko, Europako lehiakortasun funtsak, Estatuko funtsak eta KIC osatzen duten bazkideen funts pribatuak erabiltzen dira.

Xede horrekin, Europa 7 euroeskualde (CLC-ak) handitan zatitu da. Euskadi duela zenbait urte ari da lanean, fabrikazio aurreratuko Europako KIC sarearen barruan nodo gisa ezartzeko. Orain, Euskadik Europako bost “co-location” fisikoetako bat izan nahi du, Frantzia, Espainia eta Portugal barnean hartzen dituen Europako West eskualdearen ordezkari gisa.

Fabrikazio aurreratuko pilotaje taldearen beste garapen-jarduera batzuk.

Europar izaera nabarmeneko bi ekimen horiez gain, Arantza Tapia sailburuak fabrikazio aurreratuko estrategiaren garapenerako oso esanguratsuak diren beste proiektu batzuk aipatu ditu. Zehazki, aurrean abian jarri diren fabrikazio aurreratuko bi zentroak aipatu dira, Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroa eta Fabrikazio Aurreratuko Zentro Eolikoa (Windbox).

Anton Praderak fabrikazio aurreratuko pilotaje taldeak egindako aurrerabidea zehaztu du, eta nabarmendu du taldeko kide guztien partehartze eta elkarlan maila handia, uste baitute 4.0 industria Herri gisa guztioi dagokigun apustu estrategikoa dela. Bereziki aipatu ditu pilotaje

talde horren barruan eratutako lau lantalde bereziak: Sektoreko beharrian teknologikoak, sistema adimentsuak, negozio-eredu berriak eta prestakuntza.

Nabarmendu duenez, etorkizuneko fabrikaren oinarriak digitalizazioa eta on-line informazioa izango dira. Bi elementu horiek, informazioak eta denbora errealeko konektagarritasunak, nabarmen hobetuko dute eraginkortasuna eta lehiakortasuna, ekoizpen-prozesu guztiak integratuz eta fabrikazioa hainbat kokaleku fisikotan banatuta konektatzeko aukera emanez.

Industria-iraultza berri horren funtsezko beste alderdi bat ekonomia zirkularraren aurrerabidea izango da, ingurumen-iraunkortasunerako eta enpresen energia-aurrezpenerako estrategia gisa.

Azkenik azaldu duenez, Industria-iraultza berri horren bidetik prestakuntza egokiagoa duten giza baliabideak eskura egongo dira; giza baliabide horiek gai izango dira makinekin harremanetan jartzeko robotika malguaren bidez eta "internet on things" erako sistema ziberfisikoen bidez. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza-sistemak parte hartzea, ez soilik unibertsitatearen eta lanbide heziketaren esparruan, baizik eta bigarren hezkuntzatik bertatik; kontuan hartu behar dira hezkuntza arloko behar berriak.

Azkenik, adibide gisa aipatu ditu funtsean fabrikazio aurreratuaren eta energiaren artean sortzen ari diren elkarlan-proiektu batzuk.

Osasuneko sailburua

Jon Darpon sailburuak, bere hitzaldia amaitzeko, osasun arloko I+G+b estrategiaren aurrerapena aurkeztu du. Estrategia hori orain amaitzen ari da, eta datorren 2016. urteko hasieran jendaurrean aurkeztuko da. Estrategiaren oinarria lau ardatz dira: 1) ERAGINA: "osasuna hobetzea eta aberastasuna sortzea xede duten I+G+b jardueren eragina handitzea". 2) INTEGRAZIOA: "Aurrera egitea osasun sistemako ikerketa eta berrikuntza jardueraren eta arreta eta irakaskuntza lanaren arteko integrazioan". 3) PERTSONAK: "Osasun arloko profesionalen ikerketa-lanari pizgarriak ematea". 4) BALIABIDEAK: " Osasun arloko ikerketa-jardueren finantzaketa hobetzea, barruko zein kanpoko baliabideak erabiliz".

Esparru horren barruan erreferentziako bi ekimen azaldu ditu: Innosasun programa eta Erosketa Publiko Berritzailearen Bulegoa.

INNOSASUN programa

Innosasun programa aitzindaria da: Osakidetzaren eta euskal enpresen eta eragile zientifiko-teknologikoen arteko elkarlana sakonago jorratzen du, osasunaren arloan enpresa-berrikuntzako ekosistema babesteko helburua duela, hala enpresa-sarean emaitzen transferentziari eta ustiapenari on egiteko. Programa hori honetan datza: osasun-sistema enpresa-sarearekin harremanetan jartzea, ikerketako eta elkarlaneko baterako proiektuak garatzeko, euskal osasun-sistema bere ahalmenak eta Know How delakoa pazientearen

osasunaren zerbitzura eta horrez gain Euskadiren garapen sozioekonomikoaren zerbitzura ere jartzen dituen lehentasunezko bazkide bihurtzea helburu dela. Innosasun, laburbilduta, osasun-sistemaren eta euskal industria-sarearen arteko harremana bideratzen duen leihatila bakar gisa eratzten da.

laz abian jarri zenetik, Innosasun programaren bitartez guztira elkarlanerako 64 eskari kudeatu dira arlo hauetan: aholkularitza; azterlanak diseinatu eta burutzea; laginen hornikuntza, eta ideiak edo proposamenak bideratzea.

Erosketa Publiko Berritzailea

Osasuneko sailburuak, halaber, bulegoa abian jartzean osasunaren arloan Erosketa Publiko Berritzailea bultzatzeko egindako aurrerabideak azaldu ditu. Ekimen hori Kontseiluaren aurreko bilera aurreratu zen. Ekimenaren helburua, osasuna hobetzeko produktu eta zerbitzuen arloko enpresa-berrikuntza bultzatze aldera administrazio publikoek daukaten zeregina indartzea da.

Horri dagokionez, zera jakinarazi du: azaroan Osakidetzaren Erosketa Publiko Berritzailearen Bulegoa sortu da. Halaber, sei arlo edo erronka teknologikotan ideia eta konponbide berritzaileak aurkezteko lehenengo deialdi irekia onetsi da; hona hemen arlo edo erronka horiek: Larrialdia eta etxeko Laguntza; Larrialdien Kudeaketa; Pazientearen segurtasunaren hobekuntza; Historia soziosanitarioa; Baheketa Programak eta Pazientearen ahalduntzea.

Aurrez hautatutako ideia eta konponbideak oinarri gisa erabiliko dira oinarri teknikoen agiriak garatzeko eta erosketa publiko berritzailea egiteko.

Orain, Euskadi merkaturatze aurreko erosketa publiko berritzaileerako Europako MAGIC proiektuan parte hartzen ari da. Helburua, Iktusa jasan duten pazienteen zainketa hobetu ahal izateko IKTko konponbideak garatzea da, paziente horiek etxean hobeto susper daitezen.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua 15'

Zientzia 2015 txostena

Cristina Uriarte sailburuak, ikerbasquek egindako Zientzia Euskadin 2015 txostenaren emaitza nagusien laburpena aurkeztu du.

Txosten horretan hainbat motatako 40 adierazle jasotzen dira, 2004-2014 epealdia barnean hartuta. Hauek dira ondoriorik esanguratsuenetako batzuk:

- Euskadiko zientzia ekoizpenak 2014an indexatutako 5.000 argitalpenen muga gainditu zuen (5.220). Horrek esan nahi du argitalpenen kopurua hirukoiztu egin dela 2004tik gaur egunera arte.
- EHU da Euskadiko zientzia-eragile nagusia, 2014an indexatutako 2.813 argitalpen izan baititu.
- Euskadi bosgarren posizioan dago ekoizpen absolutuan, Galizia aurreratu ostean. Per capita argitalpenei dagokienez, azkar bat egiten ari da lehenengo postuetan dauden eskualdeekin.

- Nazioarteko patenteen kasuan, txostenak dioenez, argi eta garbi hobetzeko ibilbidea dugu egiteko. Herrialde gisa, Europako estandarrak lortzeko urrun gaude, gure enpresa-kulturak ez baitauka sentsibilitate handia ikerketako proiektuak eta produktu eta prozesu berritzaileak patentatzeko.
- Dedikazio osoko baliokidetasuneko ikertzaileak 11.850 izan ziren. Hala ere, handicap bat dago, emakumeen parte-hartzea eskasa baita ikerkuntza karrera garatzeko. Doktorego-tesiak defendatzen dituzten gizonen eta emakumeen ratioa antzekoa da, baina ikerkuntza-karrera sendotzen duten emakumeen kopurua txikiagoa.
- Orain Euskadik 15 ERC Grant dauzka (5 Advanced; 2 consolidator eta 8 starting grants). Datozen urteetarako erronka, euskal zientzia eta teknologia sisteman ERC-en kopurua handitzea da.
- Azkenik, INEK dioenez, Euskadik I+G jardueretan BPGren % 2 baino gehiago inbertitu zuen. Gastu horretatik, % 16 oinarritzko ikerketarako erabili da, 2020 ZTBPrekin helburuekin bat etorrita.

Azpiegituren mapa

Jarraian, sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko azpiegitura zientifikoaren mapa aurkeztu du. Mapa hau Europako MERIL (“Mapping of the European Research Infrastructure Landscapes”) ekimenaren arabera egin da. Sarbide irekia duen mapa hori Europako azpiegitura zientifikoak jasotzen dituen datu-basea da.

Euskal Mapak honako informazio hau dauka: Euskadiko azpiegitura zientifikoak; ikerketako arloko enplegu-eskaintzak; Euskadiko zientzia-erakundeak; Zientziari buruzko ekitaldi eta gertakariak; eta horrez gain euskal zientzia-sisteman sartzen diren ikertzaileentzako informazioa.

Mapak 29 erakunde dauzka, baita 119 azpiegitura zientifiko-teknologiko eta 364 ikerketa-ekipamendu ere. Libreki kontsultatu ahalko da eta etengabe eguneratuko da.

Mapa gaur egun proba-fasean dago “science.eus” webgunean, eta bertaratutakoei aukera eman zaie sartzeko eta ekarpen eta iradokizunak egiteko ikerbasque erabiltzaile-gakoarekin eta paskal00 pasahitzarekin.

5. 2016rako aurreikuspena

2016rako helburua. RIS 3 hedatzeko 2. fasea

Azalpen horien ostean, Lehendakariak gai-zerrendako 5. puntuari ekin dio, eta Jesús Peñari hitza eman dio, horrek 2016. urtean RIS 3 estrategia hedatzeko bigarren fasearen helburuak aurkez ditzan.

Jesús Peñak azaldu duenez, hedapenaren bigarren fasea hiru jarduketara ardatzetan garatuko da. Lehenengo ardatza, aurten aurkikuntza ekintzaileko espazio berriak bideratzeko abian jarritako pilotaje taldeen hedapena sakonago jorratzea izango da. Xede horrekin, pilotaje taldeen adintra hedapena egingo da; horretarako, aurten hautatutako arlo eta teknologiek

lerrokatutako lantalde bereziak abian jarriko dira. Halaber, pilotaje taldeen arteko hedapenerako pizgarria emango da, berrikuntzan eta bikaintasunean erreferentzia izango diren zeharkako elkarlan-proiektuak identifikatzeko. Helburua Europan buru diren proiektuak identifikatzea eta proiektu horien balioa agerian jartzea da.

Bigarren ardatza plana monitorizatzea eta ebaluatzea izango da. Helburu horrekin, eta egikaritzapenaren lehenengo urtea igaro ostean, 2020 ZTBPan ezarritako helburu operatiboak noraino lortu diren jakiteko jarraipen-txostena egingo da. Halaber, Euskadin Europako eragileek egindako hedapen-prozesuaren ebaluazioa egingo da. Txosten horien ondorioak jendaurrean aurkeztuko dira 2016ko maiatzeko aurreikusita dagoen jardunaldi batean.

Azkenik, hirugarren jarduketa-ardatza honako hau izango da: aurrera egitea Policy Mix-a eratzten duten I+Grako laguntza-tresna eta -programak egokitzen, 2020 ZTBPan bertan ezarritako estrategiari erantzutea helburu dela. Policy Mix-aren egokitzapen hori honako irizpide hauen arabera egingo da:

- Programak sinplifikatzea eta fokalizatzea.
- Elkarlaneko eta zeharkako proiektuak indartzea.
- Euskal programak Europako laguntza-tresnekin lerrokatzea
- Herriaren eragile diren proiektuak bideratzea.

2016ko aurrekontu-egoera

2016ko aurrekontu-egoerari dagokionez, euskal erakundeek 446 milioi euro inbertituko dituzte ikerketa, garapen eta berrikuntza jardueretan. Kopuru horretatik 385 milioi Eusko Jaurlaritzarenak izango dira, eta 61 milioi Foru Aldundienak. Apustu horrek gainditu egiten du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean 2016rako jasota dagoen inbertsio publikoko aurreikuspena bera.

6. Ebazpen-proposamenak.

Aurreko aurkezpen horiek oinarri hartuta, Lehendakariak honako ebazpen-proposamenak egin ditu, eta Kontseiluak onetsi egin ditu.

Lehenengoa. “Pilotaje taldeen zabalkundea garatzera eta sakontzera bultzatzea, arreta berezia eskainiz zientzia- eta unibertsitate-ikerketaren parte hartzea gehitzeari eta ikerketa hori RIS 3 estrategian ezarritako helburuekin bat etortzeari, batez ere aukeratutako alor estrategikoetan, euskal sistema zientifiko-teknologiko osoaren bikaintasuna areagotzeko”.

Bigarrena. “Eranskin gisa, ZTBP 2020ri atxikitzea pilotaje taldeek sistema osoaren ardazte-erreferente izateko aukeratutako alor eta teknologiak, eredu bizi eta ireki baten ikuspegitik, etengabe egokitzeko aukera izan dezan gure gaitasun zientifiko-teknologikoen arabera, gure enpresa gaitasunen arabera eta merkatuaren eskarien arabera”.

Hirugarrena. “Eranskin gisa, ZTBP 2020ri atxikitzea 50 proiektu eta ekimen garrantzitsuenen identifikazioa, horien zabalkundea egiteko nagusiki. Ondorio horietarako, horien deskribapen-fitxa bat erantsiko da, horien garrantzia ulertzen laguntzeko euskal gizarteari”.

Laugarrena. “Eranskin gisa, ZTBP 2020ri atxikitzea euskal sistema zientifikoko pertsona nabarmenen zerrenda, kontuan hartuta zerrenda ez dela osoa eta etengabe eguneratu behar dela hasierako aukeraketa egiteko ezarritako irizpide zientifikoaren eta helburuen arabera”.

Bosgarrena. “Sistemara ahalmena duten gazte gehiago erakarri eta bertan txertatzea, ERC Grants delakoen kopurua nabarmen handitzeko Euskadin”.

Seigarrena. “Ikerketa-proiektu traktoreak eta integratuak bultzatzea, funts europarrak erakartzeko eta Euskadi erreferente gisa kokatzeko Europako eta nazioarteko esparruan”.

7. **Eskaerak, galderak eta iruzkinak.**

Fernando Plazaolak, UPV/EHuren ordezkari gisa, Cristina Uriarte sailburua zoriondu du, Euskadiko azpiegitura eta ekipamendu zientifiko-teknologikoen maparen ekimenarengatik. Bere iritziz, tresna hori oso baliagarria izango da bikoiztasunak saihesteko eta erabileraren eraginkortasuna hobetzeko.

Bixente Atxak, Mondragon Unibertsitatearen ordezkari gisa, zera azaldu du: pilotaje taldeak abian jartzean iguripen asko sortu dira, eta talde horien barruan iguripen horiei erantzungo dieten ekimen eta proiektu berriak sortu beharko dira, frustraziorik ez sortzeko.

Bestalde, **Iñaki Aranburuk**, Manufacturing-eko KIC-ari buruz, zera esan du: lehentasunezko helburua da kideentzat negozioa sortzea eta heriotzaren haranean geratuko ez diren eta benetan merkatura iritsiko diren ikerketa-estrategiak garatzea.

Azkenik, **Fernando Querejetak** nabarmendu egin du ziztu bizian egindako lan bikaina, eta jendaurrean zoriondu ditu RIS 3 estrategiaren hedapenean laguntza eman duten pertsona guztiak.

Aztertzeke beste gairik ez dagoela, 18,15ean bilera amaitu da.

Jesús Peña Martínez

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA